



X Edición Premio

FRANCISCA DE ACULODI

Reunido el Jurado de la X Edición del Premio FRANCISCA DE ACULODI a la inclusión de la perspectiva de género en los trabajos de fin de Grado de la UPV/EHU —Curso 2022/2023— Rama del conocimiento: Artes y Humanidades y analizados los 8 trabajos presentados, el jurado ha decidido dar los premios a los siguientes trabajos:

En euskera:

MARKINA-XEMEINGO EMAKUMEEN IBILBIDEA: HERRIKO ONDAREAREN INTERPRETAZIOA GENERO IKUSPEGITIK

En castellano:

TÉCNICAS DE TRADUCCIÓN PAR AUN USO DEL LENGUAJE NO SEXISTA

En cumplimiento del punto 3 de la convocatoria

“El Jurado hará público el resultado de la convocatoria antes del 16 de febrero de 2024 en la página web <https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-x-edizioa>. Se incluirán estos datos: nombre de la persona ganadora, nombre de la tutora o tutor, Grado y Centro al que pertenece y título y resumen del trabajo o trabajos ganadores”



Ganadora al trabajo en euskera:

Mara Barrutia Reboredo

Grado en Historia del Arte (Facultad de Letras)

Tutoras: Haizea Barcenilla Garcia eta Aintzane Erkizia Martikorena

MARKINA-XEMEINGO EMAKUMEEN IBILBIDEA: HERRIKO ONDAREAREN INTERPRETAZIOA GENERO IKUSPEGITIK

RESUMEN

Lan honetan Markina-Xemeingo (Bizkaia) ondarea ezagutzeko ibilbide bat proposatzen da: Markina-Xemeingo emakumeen ibilbidea. Jakina denez, duela hamarkada gutxi batzuk artearen historia ikuspuntu androzentriko batetik izan da idatzia, beraz, ondarea ere modu horretan aztertu da. Baina ondarea genero ikuspegitik aztertzen badugu, ikusenezake emakumeek historian parte hartzea izan dutela eta badagoela zeresana hauen inguruan. Hortaz, ibilbide honek Markina-Xemeingo zazpi obren analisia eginez herriko emakumeen historiari ahotsa ematea du helburu.

Ibilbidea herriko alde zaharrea hasten da, Behe Erdi Aroan eraiki zen herriaren sorrerarekin batera eta gaur egun egitura berdina mantentzen jarraitzen du. Honen harira, puntu honetan herriko emakumeek aipaturiko garaian zuten bizimoduaren inguruan hitz egingo da. Xemeingo Andre Mariaren Jasokundearen elizako aldare nagusiko erretaula errenazentista izango da hurrengo geraldia. Obra hau batez ere dohaitzei esker finantzatu zen, horregatik, bere oinarrian familia donatzailea dago irudikatuta: Barroeta familia. Leinu horretako emakume baten irudikapenak adar formako burukoa darama, buruko hauek Iberiar Penintsulako eta Frantziako hegomendebaldeko emakumeek erabili zituzten Erdi Arotik XVII. mendera arte.

Hirugarren puntua Arretxinagako San Migelen basiliza da, herrian aurkitzen den eraikuntzarik bereziena. Nahiz eta balio artistiko handirik ez izan, bere barruan dituen hiru harri handiek ematen diote aipaturiko berezitasun hori. Basiliza harri hauen inguruan eraiki zen eta hauen inguruko sinesmen ugari daude. Ermita hau, herriko beste basiliza batzuen antzera, serorek kudeatu zuten. Eremu erlijiosoan emakumeek izan duten parte-hartzeari dagokionez serorak pertsonaia garrantzitsuak ditugu, hortaz, Markina-Xemeingo emakumeen historia osatzerako orduan ezinbestekoa da hauen aipamena.

Honen ostean, Udal Arrandegiko iturria dator. Iturri hau XVIII. mende bukaeran eraikitako obra neoklasikoa dugu. Arrain labaderoa izan zen arren, arropa labaderoen inguruan hitz egiteko baliagarria da. Harraskak emakumeek izan zuten espazio publiko propio bakarra izan ziren eta balio historiko handia dute. Horrez gain, aipatu beharra dago neoklasikoaren garapena ilustrazioa izendatzen dugun mugimendu kultural eta intelektualaren ondorioz garatu zela. Mugimendu intelektual eta kultural honek garrantzia handia izan zuen Markina-Xemeinen, hein handi batean Bizenta Mogel Elgezabal idazleari esker.



Hurrengo geltokia den frontoiari dagokionez, XX. mendean profesionalki jokatu zuten Markina-Xemeingo raketistak egon ziren. Frontoiak emakumeen independentziaren testiguak izan ziren, baina, Gerra Zibilaren ostean, emakumeen egoera okertu egin zen, raketistena barne, eta independentzia hau desagertu egin zen. Honen harira, herriko emakumeek Gerra Zibila nola bizi izan zuten ere azalduko da. Seigarren geldialdia.

Karmengo Ama Birjinaren komentua eta eliza barrokoa dira. Diktadura frankistaren garaian egoitzaren aldean herriko haurrei euskara irakasteko Zerutxu Ikastola ezarri zen. Ikastetxe honetako irakasle guztiak emakumeak izan ziren, irakaskuntza emakumeentzako aproposa den lanbide moduan ikusia baitzegoen. Ibilbidearekin bukatzeko, Esperanza y Cía arma fabrika aztertuko da, eraikin arrazionalista. Fabrika hau Markina-Xemeingo industrializazioaren sinboloa da, hortaz, emakumeek fabrika honetan izan duten presentziaz gain orokorrean industrializazioan izan zuten paperaren inguruan hitz egingo da.

Honekin guztiarekin, garai eta klase ezberdinetako emakumeek Markina-Xemein herriari egindako ekarpenak ematen dira ezagutzera, historian dagokien tokia hartu dezaten.



Ganadora al trabajo en castellano:

Nora Acosta López

Grado en Traducción e Interpretación (Facultad de Letras)

Tutora: Isabel Etxeberria Ramírez

TÉCNICAS DE TRADUCCIÓN PAR AUN USO DEL LENGUAJE NO SEXISTA

RESUMEN

El propósito del presente Trabajo de Fin de Grado consiste en identificar y clasificar técnicas de traducción que hacen uso del lenguaje no sexista con el objetivo de crear una recopilación que sirva de herramienta para traducir el género desde una perspectiva feminista. Para ello, con el objetivo de contextualizar y justificar el consiguiente trabajo, se abordarán en el marco teórico temas tales como la traducción feminista, el género gramatical en las diferentes lenguas de estudio —el euskera y el español—, el masculino genérico, el lenguaje no sexista y la traducción del género.

A continuación, se dedicará una sección a la metodología del estudio. En primer lugar, se expondrán las técnicas de lenguaje no sexista más relevantes y frecuentes. En segundo lugar, se presentará la muestra seleccionada para la identificación de dichas técnicas en traducciones contemporáneas, en base a la probabilidad de que estos textos hagan uso del lenguaje no sexista. En consecuencia, el análisis central girará en torno a siete ensayos sobre feminismo, traducidos del euskera al español: (1) El feminismo y las transformaciones en la política, de Mari Luz Esteban, (2) Reverso, de Uxue Alberdi, (3) No eran trabajadoras solo mujeres: testimonios de las huelguistas de las residencias de Bizkaia, de Onintza Irureta, (4) Yo sí te creo: la cultura de la violación y el caso de sanfermines, de Samara Velte, (5) La historia de Euskal Herria a través de sus mujeres, de Cira Crespo, (6) Democracia patriarcal, de Jule Goikoetxea, Lore Lujanbio, Zuriñe Rodríguez y Estitxu Garai y (7) Empar Pineda Erdozia: porque se lo pidió el cuerpo, de Kattalin Miner.

Dicho análisis seguirá dos enfoques diferentes: por un lado, se observarán las técnicas utilizadas para neutralizar el género y, por otro lado, se identificarán las técnicas utilizadas para marcar el género. Una vez estudiadas todas las técnicas, se hará una recopilación de estas en forma de tabla, con el objetivo de resumir el análisis y facilitar su consulta. Por último, se incluirán unas observaciones finales para concluir el estudio.